


Hiru dira euskal literaturaren alorrean izen handia lortu duten Mogeldarrak: Joan Antonio (1745-1804), Joan Jose (1781-1849) eta Bizenta Antonia (1782-1854). Lehenbizikoak, besteak beste, itzal handia eman zion liburu bat idatzi zuen: *El doctor Peru Abarca, catedrático de lengua bascongada e la Universidad de Basarte. Diálogo entre un rústico solitario bascongado y un barbero callejero llamado, Maisu Juan*. Beste biak neba-arrebak dira, eta Joan Antonio osaba zuten.

Bizenta Antonia Mogel Azkoitian jaio zen mundura (1782-7-6an), beraren aita han bait zegoen mediku, baina, urte bete egin baino lehen, aita hil eta Markinara aldatu ziren neba-arreba biak. Markinan igaro zuten, beraz, Joan Josek eta Bizenta Antoniak beren umezaroa, eta bertantxe eskolatu zituen osabak. Markinartzat jo ditzakegu, ba, osaba-ilobak, nahiz eta herri banatan jaioak izan: Joan Antonio Eibarren, eta Joan Jose Deban.

BIZENTA MOGEL, ETA ELGEZABAL (1782-1854)



Bizenta, urteen joan-etorrian, Eleuterio Basozabalekin ezkondu zen eta, azkenean azkena, alargundurik Abandon hil zen 1854-6-29an.



EUSKARAZ IDATZI ZUEN LEHEN EMAKUMEA

Bizenta Antonia izan genuen euskal literatura idatziaren alorra gorritu zuen lehen emakumea. Garai haietan emakumeak ez zuen eskola handirik hartzen kaltegarria zelako ustea oso zabaldua bait zegoen. Nahikoa zen irakurtzen ikastea, idazten ikastea kaltegarritzat zegoen. Orduko ustearen erakusgarri begira zer dioskun Agirre Asteasukoak:

Onetarako mutillai eman bear zate, albada, eskola ona. Au eguin gabez cembat mutil, echearen eta erriaren onragarri izango ciranac, galtzen, edo ecerezean guerutzen dira? Nescachentzat ere chit gauza ona da escola, era bada, icasi deceen dotrina, goiz-arratsetako jayera, Sacrementuac ongui artzeco prestaera, Elizan modestiarequin egotea, eta Meza entzuteco modua. Asco da au nescachentzat, bada escribitzen jaquitea, batzuentzat ona izan arren, gueyenentzat calletsu izan liteque.

Bizentak berak ere uste horren berri ematen du Ipui Onak liburuaren sarreran, hona hemen aurreneko hitzak:

Badakit, enzunaz beste gabe, neskatz gazte baten izena dagoala itxatsirik liburutxo onen aurrean, jardungo dutela siñuka ez gutxik, diotela beren artean, iñoren lumaz janzi nai duela bela txikiak; au da, besten bearrak artu nai ditudala neretzat: ez dagokiola neskatxa bati bururik ausitze liburugiñen: asko duela gorua, naiz jostorratza zuzen erabiltzea.



INTXAUSTI JAUREGIA (Azkoitia)

Bizenta Antonia Mogel eta Elgezabal Azkoitian jaio zen, bertako medikua bait zen aita, aurreagoko belaunaldian Joanes Etxeberri bezala. Hamarkada haietan Jauregi honetan bildu ohi ziren «Azkoitiko Zalduntxoak».

Baina inor ikastunik eta liburuzalerik izan bada Bizenta bera izan da:

Zortzi urte nituenean ekusirik nere neba, edo anaia ikasten asi zala gure osabarekin latiñezko izkera, jarri zitzatan buruan ikasi bear nuela nik ere. Ala, buruari neke gogorrik eman gabe, loari bere orduak emanda, ta zigor zaurigarriaren beldurrik ez nuela, jolasez bezela irten nuen nere asmoarekin.

Bizenta Mogelek ederretsi egiten die idazle klasikoen alegiei eta deus gutxikotzat ditu ume-umetan entzundako Peru eta Mariaren ipuinak:

Umeago nintzanean berriz enzun oi nituen, zoro zororik, ta pozez erotuta, atso ipuinak. Sinisten nituen egia andi batzuek bezala, Peru eta Mariaren ipui farragarri ta sustrai gabeak: enzunak enzunda ere, aspertu ezin nintzan; ta pakerik ematen ez nien atso gaixoai berriz ta berriz esateko alako ipuiak.

MARKINA

Aitagandik umezurtz geratzean, Bizenta Mogelek Markina izan zuen bere haurtzaroko herria. Geroko idazlearen urte haietan, Markina ez zen artean batere handia; baina bailara hauxe izan zen Bizentaren haur-munduaren bihotza, beti ere izaditik hurbil.



Ume ikastun, liburuzale eta ipuintzale bat agertzen da *Peru Abarka* liburuan, ume honek (Txomintxu) ipuinak euskaratzen ditu eta abade baten ipuin bat kontatzen du. *Peru Abarka* liburuko Txomintxu, Bizenta bera bezalakoa dela uste dugu eta abadea zer esanik ez, Joan Antonio; irakur dezagun arretaz antz hori somatzeko:

Daucadazan alabac dira bicochac; edo batera jaijuac, ta etzara onegaz zurtuco zu, daquizulaco izan oi diriala nosbait irucochac bere. Seme bata escolaubada, liburu zalia; badaqui erdera, ta eusqueratuten deuscuz, gaba igaroteco, iracurri dituban ipuinac, baña ipuin onac, garbi ta iñoren calte bagacuac. Egoten gachacoz auac zabalac enzuten, ume chicarrac Peru eta Marijaren ipuin gatz bagaac enzun daruezan garrac. Lengo egun baten berac buruz icasita, esaeuscun ipuin chito eder abade batec imini ebana berba neurtu ta soñutubaz.

3



IDAZLANAK

1804ean argitara zuen Bizenta Mogelek bere lehen liburua, osaba hil zen urte berean hain zuzen, eta kontuan hartzekoa da hogeitabi urte besterik ez zituela. Hitzaurrean bertan adierazten duenez, latina ondo zekien «gaztetxo nintzala irakurri ta azaldu oi nituela Fedroren latinezko ipuiak». Eta geroago: «Edozeñek daki Esoporen ipui latinez, ta itz lotu gabeetan daudenak, errazagoak dirala aditzen, Fedro, ta Virgilioren itz lotuak baño».

OSABA JOAN ANTONIO

Joan Jose eta Bizenta senideek, elkarrekin batera eman zuten haurtzaroa, osaba Joan Antonioren. Apaiza zen Joan Antonio, eta *Peru Abarka* (1802) sona handiko obra utzi zigun euskal literaturan. Beronek hezi eta eskolatu zituen Joan Jose eta Bizenta ilobak.



Esopogandik hartutako berrogeitamar alegia euskaratu zituen, eta gipuzkeraz eman; bere osaba bezala hasi zen, euskaraz idazten, hain zuzen. Liburuaren izenburua: *Ipuionac, ceintzuetan arquiteuco dituzten euskaldun necazari ta gazte gueiac eracaste ederrac beren vizitza zucentzeco* (Donosti, 1804). 114 orrialde. Undiano liburugilearen etxean.

Berrogeitamar alegia hauen ondoren, osabaren hitz neurtuzko zortzi alegia datoz. Bizentak esaten digunez, beraren osabak hitz neurtuzko alegi mordoia zuen eta banaka batzuk baino ez zituen aukeratu:

Esan nuan len bertso ipuizko oiek ez dirala nere burukoak. Pillo andi bat dauka eginda nere osaba jaunak, ta pillotik artuak dira emen ekusiko diran gutxi batzuek. Saiagarri bat da hau, ta ez gehiago.

Liburua gipuzkeraz idatzita dago baina gipuzkera horrek bizkaieraren ukitua du. Mogeldarren ukitua ere bai; esakeretan eta hitzen segidan nabarmena da hori. Mogeldarren joskera behin baino gehiagotan izan da kritikatu eta are gehiago itzulpenetako joskera. Hona hemen, adibidez, zer dioen Santi Onaindiak:

euskera ederra du, orraitio, izkerakiko sunda osotoro urrun-araztea errez etzaion arren. Itzulpena du, ta itzulpenetan, gaur ere berdin, ezta ain aixe astintzen erdel kutsuaren narda.

Liburua gazteei eta nekazariei eskaini zien, gogoratu besterik ez dago *Ipui Onak* horren izenburu osoa zein den. Orobat, eskaintza bera ere irakurriz gero:

Don Victor Munibe ta Aranguren-gori.

Nere zalduntxo; Artu ditudan ezkeroko gogoak argitara emateko ipui onen liburutxo bat, erabaki bear nuan nori bere eskintza egin. Buruari neke gogor ta gogaitzarririk eman gabe, nori asmatzen, zu izan bear zinan, nik autu bear nuena. Ipuioek atera nahi ditut gaztetxo, ta nekazariarentzat, edo Bizkaian esan oi dan bezala, nekezaleentzat.

Liburuak, merezi zuen bezala, harrera ona izan zuen, eta horren lekuko dira izan dituen argitarapen guztiak. 1880an (*Peru Abarka* liburua argitara zen urte berean hain zuzen) Bilboko *Beti Bat* aldizkariak atera zituen ipuinak. Azkue, 1899ko abuztuaren 3an hasi zen argitaratzen bere *Euskalzale* asterokoan eta hamahiru ipuin behintzat argitara zituen. *Euskal Esnalea*-k liburu berezi bat osatu zuen (Donosti, 1912), Martin, Mena y C-ren etxean, Txomin Agirreren hitzaurrearekin; eta, azkenik, *Auspoa* liburu bildumak (Zarautz, 1963) argitara du, J. San Martinen aintzinsolasarekin.

IPUI ONAK (1804)

Joan Antonio hil zen urte berean argitara eman zituen Bizentak ipuin hauek Donostian. Neska gaztea zen idazlea, eta emakumezkoen kultur zeregin eta eskubideez ere arduraturik ageri zen.

Bizenta Mogelek badu, hala ere, lan izkutuagorik. Gabon-kanta egilea ere bagenuen eta honetan, zalantzarik gabe, argi gehien isuri duena Lino Akesolo dugu:

Bilbon, urtero, eguberrietan kantatzen ziran kanta berrietan, eta Markinan Cadizko Konstituzioa erretzeko ospatu ziran jaietako bertsoetan foruzaletasuna, foruai eutsi bearra bizi-bizi agertzen zen. Eta kanta oietako batzuk Mogeltarrek sortuak dirala badakigu. Bat, Vicenta Mogel emakumea da, eta ene ustez, aietako batzuetatik ez zebillen urruti Joan Jose bera.




Eta gehiago:

En la antología de Mahn encontramos el canto de Lelo, el de Altabiscar, y varias canciones báquicas, eróticas, religiosas, históricas. En dialecto vizcaino tienen especial interés histórico: *Gabonetaco cantia Vizcaitar guztientzat* (de 1819, de Vicenta Moguel, a todas luces).

Los de 1819 (Gabon-kantak) salen a nombre de una mujer vasca (*euskaldun emakume batek aterita*), que se afirma ser doña Vicenta Moguel, que vive en Abando casada con don Eleuterio Basozabal; de ella deben ser también, a creer al P. Mateo Zabala en sus fábulas, los de 1832.

ULIBARRiren LANKIDE

Ulibarri arabarra Okondotik eta Bizenta Mogel Markinatik Abandora joan ziren bizitzera. Elkarren estimuan lankidetzara ere eskaini zion bata besteari.



Okondoko Ulibarriren laguntzailea ere izan zen:

no olvidemos que Ulibarri buscó en alguna ocasión la colaboración y los servicios de doña Vicenta para revisar y corregir sus escritos y no dejaría de hacerlo en lo posible, cuando se trataba de dar a la estampa sus versos.

Eta azkenik Espainiako Gotzainburuaren Artzain-idazkia itzuli eta argitaratu zuen, Toledoko Luis Borbon Kardinalak 1820-5-15ean egindakoa, gaztelaniaz eta euskaraz (Bilbo, 1820).

Baina gabon-kanta horiek gora behera, idazlanik ezagunena *Ipui Onak* da zalantzarik gabe. Erakusgarri gisa jartzen dugu ondoan honako hautatu dugun 23.ena.

ITZULPEN-LANETAN

Bizentaren itzulpen ezaguna da hau, Toledoko Kardinalaren gutun baten itzulpena hain zuzen. Euskaraz, Bilbon eman zen idazki hau argitara, eta argitalpenaren bukaeran zera dio: «Traducida del Romance al Bascence, por Doña Vicenta de Moguel».



IGELA ETA IDIA

Igelak ekusi zuen bein idi bat guzia loditu ta gizen eginda, zebillela zelaiko larrean, ta begitandu zitzaion bera ere azi ta gizendu zitekeala idi ura bezala bere azal ta larru zimurra betetzen bazuen nola bait. Asi zan bada puztu ta aizez arrotzen bere larrua, ta jarri zitzaion buruan azi zala asko, ta galdetu zioen ber umeai idia beste ote zan. Erantzuten dioe ezetz gutxiagoaz ere. Puztuagoa egin zan berriz puxiga bat balitz bezela. Puzka ta indarka zebillela, orra non eztanda edo ler egin zuen larrua etenda.

Ipuin onek erakusten digu ez degula arrotu bear andiago, ederrago ta aberatsago izan naiz:

Aizez gizendua
Laster da galdua
Igoten duenak goregi
Jo bearko du beregi

IGELA ETA IDIA

Honelako eta ondoko orrialdeetako irudien antzekoak eraman ohi zituzten, apaingarri bezala, alegien argitalpenek. Hemen jasotakoak La Fontaine-ren edizio batekoak ditugu.



XIX. MENDEKO ALEGILARIAK

Alegiak idatzi dituztenen artean Fedro eta Esopo aipatzen ditu Bizentak eta liburuaren azken aldera Samaniego eta Renteria. *Ipui Onak* liburuarekin, alegiak moduz kontatzeko euskara gai zela adierazi nahi zuen. Asmo horren lekuko frogagarria da ondorengo pasarte hau:

Samaniego ta Renteria jaunak ots egiten dute ipuiak berso edo itz neurtuetan ta gaztelarren izkuntzan argira emanaz. Nork —diote gero— euskara ezarri ta anbeste berso gisatan ipuiak?



XIX. mendean, Mogeldarren ondoren hainbeste alegi itzultzaile agertu zen, batez ere aurreko mendeko alegiak itzuli zituztenak. Esate baterako, J.M. Archu (1811-1881). La Fontaine-ren hainbat alegia bihurtu zituen euskarara. La Fontaine-ren beste itzuitzaile batek, Goyhetché, 1852an *Fableac edo Alegiak* argitaratu zuen Baionan. Gratien Adema ere hamazortzi alegia argitaratu zituen baina ez dira itzulpen soilak. La Fontaine-ren antzera sortu zituen.

Aita Uriartek bizkaieraz idatzi zituen alegiak. Eta XIX. mendean izan zen alegilari handienetako bat Agustin Pascual Iturriaga izan zen *Fábulas y otras composiciones en verso vascongado o Ipuiak* argitaratu zuen. Samaniegoren 55 alegia eta Virgilioren lehen eta hirugarren egloga itzuli zituen.

SAMANIEGO (1745-1801)

Ipuin gisa aman izan diren alegiek izan sonatu gutxi batzuk eta jakinak izan dituzte historian: Esopo grekoa, Fedro latinoak, La Fontaine frantsesa eta XVIII.ean gaztelaniaz ihardun zuten Iriarte eta Samaniego. Bergarako Mintegiaren zuzendari izandako arabar honek, gainera, ikastetxe horretarako idatzi zituen alegiak (1781-1784), osaba Peñafloida Kontearen enkarguz. Bizentak oso hurbiletik ezagutu ahal izan zuen, beraz, tradizio klasiko hau.

XIX. MENDEKO LITERATUR JOERAK

XIX. mendean euskal idazleak aurreko mendeko alegiak itzultzen ari zirela aldaketa bortitzak ekarriko zituen liburu bat argitara zen Alemanian, Grimm anaiek argitara emana: *Kinderund Hausmärchen* (1812). Napoleon lehenaren erasoek herrikoitasuna biztu zuten, eta ahoz-ahoz zebiltzan ipuinak biltzeari ekin zion hainbat folklorezalek. Garai hartako erromantizismoak ekarri zuen emaitzarik ederrenetako bat herri-ipoinak biltzea izan zen, dudarik gabe. Mugimendu horren eragina hemeretzigarren mendearen hondarrean eta hogeigarrenaren hasieran gertatu da batez ere Euskal Herrian. Baina Joan Antonio eta Bizenta Mogel giro hau baino lehenagokoak dira eta herri ipuinetatik barik iturri klasikoetatik edan zuten.



EUSKAL ALEGILARIAK

Alegien balio didaktikoak XIX.eko idazle bat baino gehiagoren lan-gogoa zuzpertz zuen: Uriarte, Zabala, Iturriaga, Archu edo Goyhetche aipa litezke adibidetzat. Hona hemen Iturriagak prestatutako en lehen edizioaren azala (1842).

Luis Vives Valenciako latin idazle eta maisu handiaren *Elkarrizketak* ekarri zion gogora Joan Antoniori berak ere antzeko zerbeit egin zezakeela, eta *Peru Abarka* idatzi zuen bizitzaren azken alderantza. Bizentak ere, era berean, iturri klasikoetatik edan ez ezik, herri-ipuinei buruz egiten diela dirudi. Ipuinetan, animalien arteko elkarrizketa ikasbide bat dagoelako onartzen zuen; entzun diezaiogun berari:

Naiz sinistu, naiz ez, esan bear det, gaztetxoa nintzala [...] artu oi nuela atsegin guziz andia enzunaz txakur, otso, aizeri, ollar, abere, lauñoeko, ta egaztien itzketa alkarren artekoak.



Baina animalien kontuarekin jarraituz:

Esan oi dute ero erorik nekazari batzuek, anziñako egunetan itzketan zekitela txakur, katu, aizeri, otso, ardi, ta ipuietan ateratzen diran abere, naiz egaztiak. Baña gutxi dira ain eroak. Laster igarriko dioe adartxoetan dagoala fruta: ta orri oratu bear zaiola, adartxoa baztertuta.

Mendearen azkenerantza atzerriko euskalariak ibiliko ziren herri-ipuin bila: Webster, Vinson. Eta gure mendean hainbat euskaldun: Azkue, Aita Donostia, Barbier, Barandiaran, Mayi Ariztia... Eta euskal animismoaren erakusgarri eder bat Azkuek ia mende bat geroago Markinan bertan bildu zuen ipuinaren sarrera dugu:

Antxina, bedar txori abere ta patarioak euren berbetea aztu baino lentxoago, errege bat bizi zan...



EUSKALERRIAREN YAKINTZA

Bizenta Mogelek tradizio oso herritar bat ere izan zuen bere ipuinen oinarri, alegilari klasikoek ata herriak ere arrunt maiteak izan bait dituzte beti abereengandik jasotako irakaskizunak, Azkueren obra honetan era iturri bereko jakituria topa liteke.

ESOPOREN ALEGIAK

Esaten denez, eta besteak beste, Teodoro Benfey da ipuina aztertzen duen ikertzaile sonatuenetako bat. Honen ustez, herri ipuinik gehienek Ekialdean dute beren jatorria. Ekialde deritzan lurralde zabal mugaezin horretan herrien sorterria aurkitu behar bagenu, India izango litzateke, pausuak zuzenduko genituzkeen lekua. *Vedak* direlakoetan aurkitzen dira ipuin eta alegien aztarnak. Txinako hainbat ipuinek Indian du bere jatorria, eta Europara Erdi Aroaz gero iritsi dira. Jakina, guzti honek ez du esan nahi, inondik inora ere, ipuin guztiak jatorriz Indiakoak direnik. Esopori buruz gauza handirik ez dakigu, dena dela, berrogeitik berrehun ipuinetaraino egozten zaizkio honi.

EDIZIO BERRIA (1912)

XIX mendeko alegi zaletasuna lagun. Bizenta Mogelen lana ez zen aldu euskal kulturaren oroimenean, ata Euskal Esnalea-k aman zion berriro argitara liburua (Donostia, 1912).



Juan San Martinek dioenez, Azkue eta Barandiaranek jaso izan dituzte hemen aipatzen ditugun era horretako ipuinak.

Esoporen alegiak laburrak dira eta narrazioaren aurretik edo atzetik *promitio* edo *epitimio* delakoa jartzen da, hau da ipuinetik ateratzen den ikaskizuna. Animalia, abere, hegazti, patari edo piztiak, bakoitzak bere nortasuna edo norberetasuna izango du: esaterako, lehoia beti indartsua izango da, azeria askojakina eta abar.

GIZARTE-KRITIKA

Abereen irudimenezko mundua gizarteaz hitz egiteko erabili izan dute alegiariek: animalien arteko elkarrizketa ata harremanek gizakion arteko arazoak isplatu nahi izan dituzte. Gizarteko lehia ata liskarrak irudikatzen dira «Otsoa ata bildotsa»-ren gisako ipuinetan.



BELEA ETA AZERIA.
LEHOIA ETA SAGUA

«Que en estos versos trato / de daros un asunto / que instruya deleitando; / los perros y los lobos, / los ratones y gatos, / las zorras y las monas, / los ciervos y caballos / os han de hablar en verso; / pero con juicio tanto, / que sus máximas sean / los consejos más sanos» (F.M. Samaniego).

11

EMAKUMEAK ETA EUSKAL LITERATURA

Villasantek dioenez, Garibairen lekukotasunaren arabera, badakigu Erdi Aroko azken gizaldietan, hiletetan, eresiak kantatzen zirela eta euskarazko eresi-egileak gehienetan emakumezkoak izaten zirela. Santxa Otxoa Ozetako, Milia Lasturko, Santxa Hortiz eta beste andre batzuen eresiak ezagutzen ditugu.



Hemeretzigarren mendearen azken aldera eta hogeigarren honetan hainbat emakume euskaltzale agertzen da; banaka batzuk aipatzearren hona zerrenda bat: Rosario Artola, Astibia'tar Pantzeske, Maritxu Barriola, Rosa Bustintza, M. Hegiaphal, Mayi Ariztia, M. J. Minaberry, M^a. Dolores Agirre, Elbira Zipitria, Julia Berrojaibiz, K. Elizegi, Begoña Arregi, Karmele Esnal, Mari Karmen Garmendia, M. Maortua, F. Setoain, Miren Jone Azurtza, M. A. Urreta, F. Arregi, M^a. Milagros Bidegain, Arantxa Urretavizcaya, A. Idiazabal, Amaia Lasa, Lurdes Iriondo, Albizuneko Balendiñe, Ibarrola'tar Teri, Aldalur moja bertsolaria, Pantxika Erramuzpe.

IZADI HURBILA ETA MUNDU KLASIKOA
Alegia literarioetan izadia eta mundu klasikoa elkarren ondoan agertu ohi ziren, Mogeldarren kultur zaletasunetan bezalatsu. Bizentak ere herritarra eta naturala izan nahi zuten, eta aldi berean Esopo klasikoaren obraz baliaturik ari zen lanean. Bizentaren «Eskua, oinak eta sabela» alegiari dagokion marrazkia.